PLT-C-2024-0006
JRR/ld

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, ARTAPENEKO ETA SISTEMA ADIMENDUNETAKO ZERBITZUKO TOLOSAKO, AZPEITIKO ETA ANDOAINGO LANTALDEEN BASEETARAKO GURPIL GAINEKO HIRU PALA KARGATZAILE ARIN HORNITZEKO ETA ESKURATZEKO, ETA HIRU ATZERAKO KARGAGAILU BESTERENTZEKO (SS-11666-VE, E-1598-BBC ETA E-4144-BDJ).

2-SM-40/2023 2LIC

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA:

Kontratuaren objektua izango da gurpil gaineko hiru pala kargatzaile arin hornitzea, agiri honetan jasotako ezaugarri teknikoekin bat datozenak, eta gauzazko ordainketaren zati gisa hiru atzerako kargagailu entregatuko dira (trakzio bikoitzeko Venieri VF 8.23 bat, 398-T Eurocomach bat eta trakzio bikoitzeko Guria 720-B bat).

2.- HORNITU BEHARREKO PALA KARGATZAILEEN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Ondoren adierazitako baldintzak nahitaezkoak izango dira eta makinaren muntai bakar batek guztiak bete behar izango ditu, eskakizun desberdinak gainditzeko makinaren osaketa bat baino gehiago aurkeztea debekatua dagoelarik. Gainera, aurkeztutako eskaintzak zerrendatutako ezaugarri guztiak banan-banan betetzen direla ziurtatu beharko du.

- ***Ibilgailuak:*** gurpil gaineko hiru pala kargatzaile.

- ***Osagarriak*** (pala kargatzaile bakoitzean):
  - Txirla erako koilara, 0,7 m3-ko gutxieneko edukierakoa.
  - Palet flotatzaileak eramateko urkila.

- Pala kargatzailearen ***ezaugarriak***:
  - Diesel motorra.
  - 70 zaldiko gutxieneko potentzia (51,5 kW).
  - Transmisio hidrostatikoa, 4 gurpileko trakzioarekin.
  - Ponpa hidraulikoaren edukiera bolumetrikoa: 70 l/min 220 bar-era, gutxienez.
  - Krokatze azkarreko sistema hidraulikoa.
  - Kontrol hidraulikoko joysticka funtzio guztietarako.
  - Desplazamendua: 35 km/h arteko edukiera, motel gidatzeko gailuarekin.
  - Blokeo diferentziala.
  - Eraikuntzarako profila duten pneumatikoak.
  - Osagarrietarako kontrol gehigarriko zirkuituak.
  - Atoirako krokadura eta aurreko eta atzeko korronte-hartuneak.

ACTAbd8a247a-cfcf-4870-9861-bdcf03e286eb

- ***Neurriak:***
  - Altuera koilara jaitsita dagoenean: 2,60 metro gehienez.
  - Luzera koilara jaitsia dagoenean: 5,90 metro gehienez.
  - Iraulketa altuera (koilararen beheko puntua): 2,65 metro gutxienez.
  - Gehieneko tara: 6.000 kg.

- ***Segurtasunarekin eta erosotasunarekin*** lotutako alderdiak:
  - Aire girotua edo aire klimatizatzailea.
  - Kabina intsonorizatua, beroa xurgatzen duen beirarekin.
  - Iraultzearen zein objektuen erorketaren arriskuaren kontrako sistemak.
  - Jarleku doigarria, esekidura pneumatikoarekin eta segurtasun uhalarekin.
  - Makinaren kanpoaldetik motorraren konpartimentura sartzeko erraztasuna.
  - Aurreinstalazioa, igorgailua, bluetooth-a eta GPS lokalizagailua jartzeko.
  - LEDeko 2 V-2 argi kabina gainean.
  - Aurreko eta atzeko lan-argiak.
  - Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren (RD 2822/1998) XI. eranskinaren araberako balizajea, egituraren behealdean gutxienez 10 cm-ko zabalerako 3 motako banda fluoreszenteekin osatuta.
  - Makinei eta horien segurtasunari buruzko EE Zuzentarauak betetzea (2006/42/EE, 2000/14/EE eta 2005/88/EE).

- ***Beste batzuk:***
  - 2 urteko bermea.
  - DFG-GFA marka korporatiboa.
  - Garraioa, dokumentazio osoa eta matrikulazioa izapidetzea barne, adjudikaziodunaren kontura.

3.- PRESTAKUNTZA IKASTAROA:

Adjudikaziodunak prestakuntza ikastaro bat eskainiko du pala kargatzailearen maneiuari, funtzionamenduari eta mantentze lanei buruz, gidari makinistei zuzendua eta langile gaituek emana. Ikastaro honen kostua hornitutako makineriaren eskaintzan sartuko da eta, beraz, ez dio inolako kostu gehigarririk ekarriko GFAri.

Era berean, bere gain hartuko du makineria-parkeko mekanikarien prestakuntza espezifikoa, makinaren deskribapenari eta ezaugarri teknikoei, ikuskapen eta kontserbazio puntuei, konponketa txikiei eta abarri buruz, eta markako teknikari kualifikatuek emango dute.

ACTAbd8a247a-cfcf-4870-9861-bdcf03e286eb

4.- ANTOLAKETA LOGISTIKOA:

Saldu ondoko zerbitzua faktore garrantzitsutzat jotzen da. Ondorioz, zerbitzu horren kalitatea baloratuko da, eta, horretarako, kontuan hartuko dira tailerren kokapena eta hornitutako makinerian sor daitezkeen gorabeherei erantzuteko eskura dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak. Hauek dira GFAren gutxieneko eskakizunak eremu horretan:

- Gipuzkoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik 100 km-ra, gutxienez, tailer bat, norberarena edo lankidetzan.
- Aurreko puntuan sartutako tailerren azalera, gutxienez, 100 m^2-koa da.
- 2 pertsona, gutxienez, tailer horietan, mantentze-lanetan dihardutenak eta trebatuak.
- Landan gorabeherei aurre egiteko gutxienez ibilgailu mugikor bat izatea.

5.- BESTERENDU BEHARREKO MAKINERIAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Besterendu beharreko hiru atzerakargagailuen ezaugarriak taula honetan jasotzen dira, 30.986,00 euroko tasazio balioa gehituta *(ikus erantsitako tasazio txostena)*:

	VENIERI	**EUROCOMACH**	**GURIA**
Modeloa	VF 8.23	398 T	720 B
Trakzioa	Trakzio bikoitza	-	Trakzio bikoitza
Potentzia	20 CVF	21,37 CVF	19 CVF
Matrikula	E 1598 BBC	E 4144 BDJ	SS 11666 VE
Matrikulazio data	1999/10/04	2005/11/18	1988/09/08
Tara	7.800 kg	9.000 kg	7.610 kg
Egungo kokapena	Andoaingo basea	Azpeitiko basea	Zapatari parkea
Erabilera ordutegia	6.730 ordu	5.024 ordu	4.828 ordu
Tasazioa	8.200 €	21.250 €	1.536 €





Venieri atzerako kargagailuaren argazkiak

ACTAbd8a247a-cfcf-4870-9861-bdcf03e286eb





Eurocomach atzerako kargagailuaren argazkiak





Guria atzerako kargagailuaren argazkiak

6.- AURREKONTUA

Hornidura kontratua unitateko preziokoa izango da, eta enpresa interesdunek pala kargatzaileko unitate bakoitzerako eskainitako prezioa eskaini beharko dute. Kalkulatzen da makina bakoitzaren kostu unitarioa 105.390,00 € + BEZa izango dela.

Hornitu beharreko unitateak hiru dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsia eskainitako balioaren hirukoitza izango da, eta 316.170,00 eurokoa izango da, BEZik gabe.

Era berean, besterendu beharreko makineriaren tasazioari buruzko peritu txostenak 30.986,00 euroan baloratu ditu atzerakako hiru pala kargatzaileak. GFAk aukera emango die hala eskatzen duten enpresa interesdunei, eskaintzak aurkezteko epean instalazioetara bisita bat egin ahal izateko.

Beraz, eskuratze horretarako aurreikusitako lizitazio tasa 351.579,70 € da, kontratuaren balio zenbatetsiari BEZaren % 21 aplikatuta eta besterendutako balioa deskontatuta ateratzen dena.

7.- ENTREGATZEKO EPEA:

Entregatzeko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, kontratatutako hiru unitateentzat.

EKS | CSV: **ACTAbd8a247a-cfcf-4870-9861-bdcf03e286eb**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2024-0006 EUSKERA.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
RABAGO RUIZ, JON BENJAMIN - INSTALAZIOETAKO ERDI TEKNIKARIA
Data / Fecha: 2024/05/10 11:56:09

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
CAPETILLO ARRANZ, Ane Miren - AB INSTALAZIO ETA EKIPAMENDU ADIMENDUAK // JSC INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO INTELIGENTE
Data / Fecha: 2024/05/10 12:02:50

Sinatzailea 3 / Firmante 3:
ZUFIRIA ZATARAIN, Iñigo - JEFE DE SERVICIO DE CONSERVACION Y SISTEMAS INTELIGENTES
Data / Fecha: 2024/05/10 12:13:10